



INGURUMENEO ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, ZEINAREN BITARTEZ EMATEN DEN ASTIGARRAGAKO HAPOREN ALDAKETAREN INGURUMENEO TXOSTEN ESTRATEGIKOA, ZARKUMENDEGI ZABALPENA 23. HIRIGINTZAKO ESKU HARTZE AREARI BURUZKOA

1.- Aurrekariak

Astigarragako Udalak hasiera eman dio Zarkumendegi Zabalpena 23. Hirigintzako Esku-Hartze Areari eta sagardotegien arau arautzaileei buruzko Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Aldaketa Puntualaren tramitazioari.

2015eko urriaren 30ean, Astigarragako Udalak galdetu zion Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari ea aldaketa horrek ingurumeneko ebaluazio estrategikoa behar duen. Idatziarekin batera agiri bat aurkeztu zuen, non proposatutako aldaketen xedeak deskribatzen ziren eta proposamena gainera aztertzen zen. Ondoren, Udalak agiria osatu zuen HAPoren Arau Orokorren 36.6 kapituluaren idazketa berriaren zirriborroarekin, Astigarragako Udalerriko ordenantza arautzailea jasotzen baitu.

Ingurumen ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2. artikulua ezarritakoari jarraiki, ingurumenaren gaineko ebaluazio estrategiko erraztua egin behar zaio Hiri Antolaketako Arauen Aldaketari, lege bereko 29. eta 32. artikuluei ezarritako prozedura jarraituz.

Prozedura horren bitartez, ingurumeneko organo honek administrazioei, erasandako pertsoneri eta erakundeei kontsultak egin behar dizkie eta, kontsulta horien arabera, ingurumeneko txosten estrategikoa egingo du; izan ere, txosten horretan zehaztu behar da, 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen V. Eranskinak ezarritako irizpideekin bat etorritik, ea Aldaketak ingurumenaren gainean eragin adierazgarriarik duen eta, beraz, ea ingurumeneko ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar den, edo ez duen horrelako eraginik, ingurumeneko txosten estrategikoaren terminoen arabera.

Ebazpen honen bitartez, Zarkumendegi Zabalpena 23. Hirigintzako Esku-Hartze Areari eta lurzoru ez-urbanizagarrian kokatutako sagardotegien arau arautzaileei buruzko Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Aldaketa Puntualari dagokion ingurumeneko txosten estrategikoa ematen da; txosten horrekin bukatzen da ingurumeneko ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura.

2.- Eragindako administrazioei, pertsoneri eta erakundeei kontsultatzea

21/2013 Legeak bere 30. artikuluan adierazten du ingurumen organoak kontsultatu egin behar dituela eragindako administrazio publikoak eta pertsona interesdunak, ingurumen-txosten estrategikoa eman baino lehen.

Proiektuaren ezaugarriari eta proiektuak hartzen duen lurralde esparruari buruzko informazioa oinarri hartuta, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak interesa izan dezaketen administrazioak eta organizazioak identifikatu ditu eta kontsulta egin die. Horiei, organo sustatzaileak idatzitako kontsultetarako ingurumen dokumentua bidali zaie:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia (GFA).
- GFAko Mendietako eta Natura Ingurumeneko Zuzendaritza.
- GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza.
- GFAko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza.



- Uraren Kontrol eta Kalitate Unitateko burua
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza.
- IHOBE.
- URA Uraren Euskal Agentzia.
- Añarbeko Urak SA
- Kantauriko Ur Konfederazioko Komisariotza.
- ENHE.
- ENBA.
- Aranzadi.
- Eguzki talde ekologista
- Ekologistak Martxan.

Orobat, ingurumen dokumentua Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.net) egon da eskuragarri jende guztiarentzat, interesatuek ingurumenaren inguruan egin nahi zituzten ekarpenak egiteko.

Erantzuna emateko epea bete ondoren, honako hauek jaso dira:

- IHOBEk jakinarazi duenez, historikoki lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituen partzela bat dagoela aldaketa jasan dezakeen eremuan eta, beraz, arriskua egon daitekeela erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat aurrerantzean.
- Kantauriko Ur Konfederazioak jakinarazi du Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko Ur Konfederazioaren arteko jabari publiko hidraulikoaren kudeaketari eta zainguneari buruzko lankidetzak dela eta, eskaera Uraren Euskal Agentziari (URA) helarazi zaiola, erakunde hori izango baita bi erakundek egindako txostenak aditzera emango dituenak.
- Uraren Euskal Agentziak (URA) proposatutako aldaketaren balorazio positiboa egin du, Galtzaur errekek eta ibarrek kalte gutxiago jasango dituztelako, indarrean dagoen antolaketa ezarritako jarduketekin alderatuta.
- Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzaren ustez, eremuari sailkapena kentzeak lagundu egingo du haritzak eta baso hostotsu eta autoktonoak babesten, aldaketa jasan dezakeen eremuan nabarmendu daitekeen natura elementu bakarra. Gomendatzen du baso zati horiek *Babes bereziko* kategorian sartzea
- Eusko Jaurlaritzako Kulturako Ondarearen Zuzendaritzak egindako txostenean adierazten da Kulturako Ondarean ez dela antzeman aldaketatik eratorritako eraginik.

Ebazpen hau eman eta ondoren erantzun bat jasoko balitz, Astigarragako Udalari bidaliko zaio ahal bezain laster, aldaketa idazteko eta tramitatzeko garaian kontuan har dezaten.

3.- Zarkumendegi Zabalpena 23. Hirigintzako Esku- hartze Arean eta sagardotegien araudian proposatutako aldaketaren deskribapena.

Astigarragako Udalak bidalitako agirian adierazten denaren arabera, Aldaketaren xedea da Zarkumendegi Zabalpena 23. Hirigintzako Esku-hartze Area lurzoru ez-urbanizagarri gisa sailkatzea eta sagardotegiak instalatzeko arautegia lurzoru ez-urbanizagarriara aldatzea.



2009an onartutako Astigarragako HAPOn Testu Bateginak 110.125 m² azalerako industria lurzoruaren erreserba aurreikusten du, Zarkumendegi Zabalpena 23. Hirigintzako Esku-hartze Area izenekoa, ekimen publikoaren bitartez garatzekoa, eta Zarkumendegi 21. Hirigintzako Esku-Hartzea Area eta Astigarragako hirigunea lotuko zituena. Era berean, eremu horretan planteatzen da jarduera ekonomikoen barruan sagardotegi esparru bat finkatzea eta garatzea.

Astigarragako Udalaren asmoa da Zarkumendegi Zabalpena 23. Hirigintzako Esku-hartze Area lurzoru ez-urbanizagarria itzultzea, urbanistikoki garestia baita eta ez egokia eremu horretan jarduera ekonomikoak ezartzea, duen orografia dela eta. Xede horrekin, Aldaketaren bidez eremua lurzoru ez-urbanizagarri gisa sailkatu nahi da eta lurzoru hori HAPOn definitutako antolaketa unitate mota desberdinetan kategorizatu.

Lurzoru ez-urbanizagarrian sagardotegiak arautzeko araudiaren zirriborroak, bestalde, dauden sagardotegi guztiak birgaitzeko, hobetzeko eta handitzeko baldintzak ezarri ditu eta baita sagardotegi berriak eraikitzeko baldintza orokorrak ere. Indarrean dagoen arautegiak ez bezala, ordenantza berriak sagardotegi berriak lurzoru ez-urbanizagarrian ezartzea ahalbidetuko luke, baina “nekazaritza-abeltzaintza eta landazabal” eta “baso intereseko” kategorietan eta “ekoizpenerako baso erabilera” azpikategorietan daudenak soilik eta nekazaritza ustiatagia aurretik izatearen baldintzapean.

4.- Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskineko irizpideen araberako azterketa

Zarkumendegi Zabalpena 23. Hirigintzako Esku-hartze Area loturarik gabeko hiru gunez osaturik dago, *Zarkumendegi 21.* Hirigintzako Esku-hartzea Arearen inguruan, jarduera ekonomikoak burutzen dituen sektorea eta oraindik hirigintza aldatzeko dagoena. Gune horietatik handienak Astigarragako hirigunera arte doan zerrenda bat hartzen du, Bereziartua eta Irigoyen sagardotegien inguruan. Erasandako eremuaren barruan daude belardiak, baso txikiak, sagardotegien eraikinak, industria jarduera txikiak (lantegiak) eta sakabanatutako etxeak.

Antolaketaren eremua ez dago naturgune babestu batean, ez ditu ere aparteko elementu naturalik edo babes edo arreta berezirik.

Baliorik handienak dituzten ingurumen baliabide edo elementuak honako hauek dira:

- Aldaketa eremuan hein handi batean jasota dauden Galtzaur erreka eta ibaiertzak.
- Batasunaren intereseko habitata eta nekazaritza jardueraren funtsezko elementua osatzen duten altuera baxuko sega belardi pobreak
- Harizti basoak – baso mistoak eta zuhaixka autoktonoak

Aldaketak ez luke elementu horietan inolako eraginik izango, aitzitik, antolaketa berriak sektorearen urbanizazioa saihesten du, eta haritz gunek eta hostotsu autoktono gazteak diren baso naturala kontserbatzen lagunduko luke Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak txostenean azaltzen duenaren arabera. Era berean, Uraren Euskal Agentziaren (URA) ustez, Aldaketak Galtzaur errekan eta ibaiertzetan eragin gutxiago izango luke indarrean dagoen antolaketan jasota dauden jarduketek eragin dezaketena baino.

Sagardo jardueraren araudi arautzailearen aldaketari dagokionez, egungo arauketa baino zehatzago bat ezarri nahi da sagardotegiak berritzeko, hobetzeko, handitzeko eta baita sagardotegi berriak eraikitzeko baldintza hauen inguruan: eraikuntza baldintzak, estetikoak, ingurumenekoak eta urbanistikoak. Egungo arautegiak ez bezala, proposamen berriak sagardotegi jarduera berriak jasotzen ditu lurzoru ez-urbanizagarrian, lehentasuna emanez



jarduera horiek dauden sagardotegi eraikinetan ezartzeko eta aurretik nekazaritza jarduera izatearen baldintzapean. Hortaz, alderdi horren aldaketak ez du ingurumeneko eragin esanguratsurik izango, betiere araudiak baimen irizpideak ezartzen baditu ingurumen gune eta elementu ahulen afekzioak saihesteko.

Beraz, ondorioztatzen da proposatutako Aldaketak ez dituela ingurumen eragin esanguratsuak izango, betiere sagardotegiak lurzoru ez-urbanizagarrian ezartzeko eta handitzeko arautegiak beharrezkoak diren baldintzak ezartzen baditu, bai eraikinen eta instalazioen nekazaritza lurzoruetan eta lurzoru naturaletan izan daitekeen eragina mugatzeko, bai sagardotegien berezko ekoizpen, komertzializazio eta ostalaritza jardueretan ingurumen ondorio kaltegarriak mugatzeko.

E B A Z T E N D U

Lehena.- Ingurumeneko ebaluazio estrategiko arruntik ez egitea Astigarragako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketari, Zarkumendegi Zabalpena 23. Hirigintzako Esku-Hartze Areari dagokienean. Izan ere, kontuan hartuta egin diren kontsulten emaitzak eta V. eranskinean ezarritako irizpideak, ondorioztatzen da aldaketa horrek ez duela izango inpaktu adierazgarririk ingurumenean, betiere ingurumen txosten estrategiko honetako bigarren atalean ezarritako terminoak betetzen badira.

Bigarrena.- Astigarragako Hiri Antolaketako Aldaketa baldintza hauek jarraituz burutuko da:

1. *Zarkumendegi Zabalpena* gunean lurzoru desklasifikatuaren erabilerearen zonakapen bat egingo da, HAPOn aurreikusitako antolaketa kategoriak aplikatuz, betiere kontuan hartuta gune bakoitzeko ingurumen eta nekazaritza balioak, eta emango zaien erabilera eta bertan egingo diren jarduerak.
2. Araudi arautzaile berriak sagardotegien kokapen, eraikitze, urbanizatzeko eta jardueren irizpide espezifikoak ezarri behar ditu, eta baita instalazio osagarrienak ere, esaterako sarbideak eta aparkalekuak, balio handiagoko ingurumen baliabideen babesa bermatuz.

Zentzu horretan, araudiak zehaztu behar du ez direla baimenduko sagardotegiei lotutako eraikin berriak edo instalazioak lurzoru ez-urbanizagarrietan, elementu edo baliabide hauek hartzen badira edo kaltetzen badira:

- a. HAPOn barruan *Nekazaritza Erabilpen Estrategikoko* azpikategorian jasota dauden guneak, edo Nekazaritza-Basogintzako Lurraldearen arloko Planaren barruan *Balio Estrategiko Handi* gisa sailkatuta daudenak.
- b. Espezie autoktonoek hartutako masak eta baso guneak
- c. Pasaia ikuspegitik gune ahulak direnak, haien hauskortasuna eta ikuspena direla eta.

Bestalde, ordenantzak sagardotegien funtzionamendu baldintzak ezarri behar ditu sagardotegien inguruan eraginik ez izateko, hala nola, isolamendu akustikoa, hondakin uren tratamendua edo hondakinen kudeaketa.

Hirugarrena.- 21/2013 Legearen 31.4. artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz, ingurumeneko txosten estrategikoak bere indarraldia galduko du eta berezko ondorioak beran behera utziko dira, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero, lau urteko gehienezko epean ez bada Aldaketa onartu.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

Laugarrena.- Agintzea ingurumen-txosten estrategiko hau argitara dadin Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta zuzendaritza honen web orrian.

Donostia, 2016ko martxoaren xx

INGURUMENeko ZUZENDARI NAGUSIA,

Sin...: Félix Asensio Robles